

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroa izan da krisiak gutxien astindu duen komunitatea, Fitch kalifikazio-agentziaren arabera

2008-2013 aldian Foru Komunitateko BPGd-ak % 3,86 egin du atzera; Estatuan, berriz, % 5,96 batez beste

Martes, 10 de marzo de 2015

Nafarroako ekonomiak autonomia erkidegoen artean "erantzun onena" izan du 2008-2013 aldian, Fitch kalifikazio-agentziak egindako [Regional GDP growth in Spain](#) txostenaren arabera.

Denbora-tarte horretan, dio txostenak, Foru Komunitateko eskualdeko BPGd-a % 3,86 murriztu da, eta, hala, Estatuko BPGd-aren erorketa arintzen lagundu du (% 5,96). Nafarroaren atzetik Balear Uharteak, Katalunia eta Kanariak daude. Aldiz, erorketa handienak Asturiasen, Murtzian eta Valentzian sentitu dira, haietan guztietan % 8tik gora. Autonomia erkidego horien BPGd-aren garrantzia Estatuko % 14 da, baina Espainiako ekonomiaren "gainbeheran % 23,3ko eragina izan dute", Fitch-ek dioenez.

Azterketa hori egiteko, Fitch kalifikazio-agentziak Estatistikako Institutu Nazionalaren datuak erabili ditu, eta bertan azpimarratzen denez, krisia egon arren, iparra-hegoa tarteari eutsi zaio. Zehazki, nabarmendu du "Madril eta Nafarroak (BPGd-aren per cápita batez bestekoaren % 30 gaineratik) Extremadura (-% 33) edo Andaluziarekiko (-% 25) duten alde handiari eusten diote".

Bestalde, azterketak BPGd-aren bilakaera autonomia erkidegoen artean izandako barneko biztanleen mugimenduekin erlazionatzen du. Hark ondorioztatzen duenez, erantzun hobea izan duten eskualdeek biztanle-kopuru gehien hartu dute "lan-baldintza hobek bilatzeko, ziur asko". Alde horretatik, Madril (aldi horretan bertako biztanle-kopurua % 5,1 igo da), Balear Uharteak (+% 4,4) eta Nafarroa (+% 3,8) nabarmentzen ditu.



Nafarroa, krisiak gutxien astindu duen komunitatea, Fitch-en arabera.

2015erako ikuspegiari erreparatuz, agentziak uste du Espainia % 1,7 haziko dela. Eskualde-mailako aurreikuspenik egiten ez duen arren, "litekeena da autonomia erkidegoen arteko jarrera desorekatuak jarraitzea" (txostenean aipatzen dena); horrekin batera, hazkundera egoera hobean dauden autonomia erkidegoetan gehiago nabaritzea espero da. Azpimarratu du ere, "kanpoko sektorea eta lehiakortasuna sendotu egin direla autonomia erkidego guztietan eta Foru Komunitateetan, eta lan-merkatua suspertzen ari dela".

Fitch-ek ezkutuko ekonomia ebaluatzeko kapitulu bat eskaintzen du bere txostenean, BPGd-aren % 24,6 dena, batez beste. Eskualde guztietan presentzia homogenea duela azpimarratzen du, nahiz eta zertxobait handiagoa den "ahulenak diren lekuetan". Haren garrantzia % 17,3koa da Madrilen, eta % 31,1 ekoa Extremaduran. Nafarroan eta EAEn ezkutuko ekonomiaren garrantzia batez bestekoaren antzekoa da; izan ere, "bertan dagoen araubide fiskalagatik ez dago behar besteko daturik kalkulu mardulago bat egiteko".

Azkenik, agentziak kalkulu labur bat egin du 1995-2013 aldian eskualdetako ekonomien garrantzia nola aldatu den jakiteko. Handik ondorioztatzen da, Madrilen izan ezik (+% 1,18), BPGd-aren banaketa per cápita egonkortuta izan dela aldi horretan. Nafarroak Estatuko BPGd-ari ematen dion aberastasuna % 1,35 iko da; hala, Foru Komunitatearen garrantzia Espainiako BPGd-aren % 1,72an geratu da.